

4. GAIA

1 Zirkuituen analisisian ondokoa gertatu beharko da:

- a) Oinarrizko eraztunen korranteak linealki askeak dira.
- b) Oinarrizko ebakiduretako tentsioak linealki askeak dira.
- c) Zirkuitua launa bada, sareetako korranteak linealki askeak dira.
- d) "a", "b" eta "c" erantzunak zuzenak dira.
- e) Erantzun denak faltsuak dira.

2 Oinarrizko ebakidura taldeen bidezko zirkuitu baten analisisian:

- a) Oinarrizko ebakidura talde batek zuhaitzeko zenbait adar ditu.
- b) Oinarrizko ebakidura talde kopurua korapilo kopuruarekin bat dator.
- c) Derrigor oinarrizko ebakidura talde kopurua korapilo kopurua baino txikiagoa da.
- d) Oinarrizko ebakidura talde bat ezin da inola zere korapilo bat izan.
- e) Katebegi kopuru beste, oinarrizko ebakidura talde dago.

3 Zirkuitu baten zuhaitzaren adar guztietako tentsioak ezagutuz, ezagut ditzakegu:

- a) Zuhaitzeko adarretako tentsioak baino ez.
- b) Adar guztien tentsioak baino ez.
- c) Zuhaitzeko adarretako korranteak.
- d) Adar guztietako korranteak..
- e) Adar guztietako tentsio eta korranteak.

4 Transformadore ideala

- a) Elementu pasibo bat da.
- b) Elementu lineal bat da.
- c) Elementu elkarrekiko bat da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- e) Elementu aktibo bat.

5 Transformadore ideal batean badakigu primarioan 100V aplikatzen direnean sekundarioan 300V agertzen direla, baldintza horietan, esan dezakegu:

- a) Transformadorea jasotzailea da.
- b) Transformazio erlazioa 3 da.
- c) Espiren arteko erlazioa 3:1 da..
- d) Errendimendua %100 da.
- e) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

6 Ondoko baieztapenak egia edo gezurra diren adierazi:

- a) Sare bat eraztun bat da. E G
- b) Sareen metodoaz zirkuitu lauak baino ezin dira aztertu. E G
- c) Sareen metodoa oinarrizko eraztunen metodoaren kasu berezi bat da. E G
- d) Zirkuitu baten adar talde ireki bat zuhaitz bat da. E G
- e) Zuhaitzaren adar kopurua , zirkuituko korapilo kopuruarekin bat dator. E G